# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Xedapenak eta Administrazio Ebazpenak

*Zerga Premiatasuneko Araugintza Dekretuak*

**1406**

**2/2007 ZERGA-PREMIAZKO ARAUGINTZAKO DEKRETUA, otsailaren 27ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko zerga araudira egokitzen ditu abenduaren 29ko 13/2006 Errege Lege Dekretuak eta abenduaren 29ko 44/2006 Legeak ezarritako aldaketak. Lehenengoak PREVER programa dela-eta premiazko manuak ezartzen ditu eta bigarrenak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa hobetzen du.**

Nola abenduaren 29ko 13/2006 Errege Dekretua hala abenduaren 29ko 44/2006 Legea onartu eta argitaratzeak zerga bereziak arautzen dituen araudian aldaketak eragin ditu. Lehenengoak PREVER programa dela-eta premiazko manuak ezartzen ditu, ibilgailu automobilak modernizatzeko, bideko segurtasuna handitzeko eta ingurumenaren alde egin eta hura babesteko; bigarrenak, berriz, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen babesa hobetzeaz gain hidrokarburoen gaineko zerga itzultzen die nekazari eta abeltzainei, ohiz kanpo.

Euskal Autonomia Erkidegoarekin egindako Ekonomia Itunak (maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onartua) 33. artikuluan ezartzen duenez, zerga bereziak itunpeko tributuak dira eta Estatuak unean-unean ezartzen dituen arau substantibo eta formalen menpe egongo dira.

Horrek guztiak beharrezkoa egiten du aipatutako arauetan zerga horien inguruan sartu diren aldaketak Arabako Lurralde Historikoaren zerga araudira ekartzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena ikusi da.

Horiek horrela, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan eztabaidatu ondoren, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak Arabako Foru Aldundiari aitortzen dizkioten aginpideak erabiliz, premiazko arrazoiengatik, honakoa

XEDATU DUT:

1. artikulua.- Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua aldatzea.

Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren 76. artikulua aldatu egiten da, eta 2007rako baino ez du ondorea eragingo.

76. artikulua- Kuotaren kenketa.

1. Hurrengo paragrafoak ezarritako baldintzak betetzen dituen turismoko ibilgailu automobil erabilien titular diren subjektu pasiboak eskubidea izango du 480,81 euroko kenketa egiteko, eta kenketa hori ezin izango da kuota-kopurua baino handiagoa izan. Kenketa hori egin ahal izango da hurrengo 3. paragrafoak ezarritako baldintzak betetzen dituen turismoko ibilgailu automobil berri baten jabe direnek ibilgailua lehenengoz matrikulatzeagatik ordaindu beharreko zergaren kuotan.

2. Turismoko ibilgailu automobil erabili horrek ondorengo hauek bete behar izango ditu:

a) Artikulu honek aipatzen duen kenketa aplikatu daitekeen unean, hamar urteko edo gehiagoko antzinatasuna izatea, ibilgailua lehenengoz behin betiko matrikulatu zenetik zenbatzen hasita.

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones y Resoluciones Administrativas

*Decretos Normativos de Urgencia Fiscal*

**1406**

**DECRETO NORMATIVO DE URGENCIA FISCAL 2/2007, del Consejo de Diputados de 27 de febrero, que adapta a la normativa tributaria del Territorio Histórico de Álava los cambios establecidos por el Real Decreto-Ley 13/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen medidas urgentes en relación con el programa PREVER, y por la Ley 44/2006, de 29 de diciembre, de mejora de la protección de los consumidores y usuarios.**

La aprobación y publicación, por un lado, del Real Decreto-Ley 13/2006, de 29 de diciembre, por el que se establecen medidas urgentes en relación con el programa PREVER para la modernización del parque de vehículos automóviles, el incremento de la seguridad vial y la defensa y protección del medio ambiente, y, por otro, de la Ley 44/2006, de 29 de diciembre, de mejora de la protección de los consumidores y usuarios, que incluye la devolución extraordinaria del Impuesto sobre Hidrocarburos para agricultores y ganaderos, ha supuesto la introducción de modificaciones en la normativa reguladora de los Impuestos Especiales.

El Concierto Económico con la Comunidad Autónoma Vasca, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, en su artículo 33 establece que los Impuestos Especiales tienen el carácter de tributos concertados que se regirán por las mismas normas sustantivas y formales establecidas en cada momento por el Estado.

Ello exige incorporar a la normativa fiscal del Territorio Histórico de Álava las modificaciones incluidas en las referidas normas.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy, en uso de las atribuciones que concede a la Diputación Foral el artículo 8 de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava y la Norma Foral 52/1992, de 18 de diciembre, -de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la Diputación Foral de Álava-, por razones de urgencia,

DISPONGO:

Artículo 1.- Modificación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales.

Con efectos exclusivos para el año 2007 se modifica el artículo 76 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, que queda redactado en los siguientes términos:

Artículo 76.- Deducción de la cuota.

1. Los sujetos pasivos que sean titulares de un vehículo automóvil de turismo usado, que cumpla las condiciones establecidas en el apartado 2 siguiente, tendrán derecho a practicar, en la cuota del Impuesto exigible con ocasión de la primera matriculación definitiva a su nombre de un vehículo automóvil de turismo nuevo que cumpla los requisitos establecidos en el apartado 3 siguiente, una deducción cuyo importe, que en ningún caso excederá del de la propia cuota, será de 480,81 euros.

2. El vehículo automóvil de turismo usado al que se refiere el apartado anterior deberá:

a) Tener, en el momento en que sea aplicable la deducción a que se refiere este artículo, una antigüedad igual o superior a diez años, contada desde la fecha en que hubiera sido objeto de su primera matriculación definitiva.

Ibilgailua lehenengoz Espainian behin betiko matrikulatu ez bada, aurreko lerroaldean adierazitako antzinatasunaz gain, honakoa eskatuko da: erabilitako turismoko ibilgailu automobil hori desegiteko behin betiko baja eman (hurrengo b) paragrafoak jasotzen du hori) baino gutxienez sei hilabete lehenago Espainian behin betiko matrikulatuta egotea.

b) Desegiteko behin betiko baja ematea, eta sei hilabete baino gehiago ez pasatu izana baja ematetik turismoko ibilgailu automobil berria matrikulatu arte.

3. 1. paragrafoak aitatzen duen ibilgailu horrek 2.500 metro kubo baino zilindrada txikiagoa izan behar du.

4. Baldintza horiek guztiak betetzen direla ibilgailu berria behin betiko matrikulatzerakoan egiaztatu beharko da, eta zerga ordaindu izanaren egiaztagiriarekin batera, erabilitako ibilgailuari behin betiko baja eman zaiolako egiaztagiria aurkeztuko da. Azkeneko egiaztagiri hori Trafikoko Zuzendaritza Orokorrak edo haren menpeko organoek egin beharko dute.

2. artikulua.- Urriaren 28ko 17/1997 Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretua aldatzea. Dekretu horren bidez, Arabako zerga-araudian urriaren 8ko 39/1997 Legeak (PREVER Programa onartzen du) jasotako zenbait manu txertatzen da.

Urriaren 28ko 17/1997 Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretuaren 3. artikulua aldatzen da, eta horrek 2007rako baino ez du ondorea izango. Dekretu horren bidez, Arabako zerga-araudian urriaren 8ko 39/1997 Legeak (PREVER Programa onartzen du) jasotako zenbait manu txertatzen da. Beraz, honela geratuko da idatzita artikulu hori:

3. artikulua.-

1. Artikulu honetako 4. paragrafoan zehazten diren pertsonek ondorengo kenketa hauek egin ditzakete: gehienez 6 tonako (baimendutako gehienezko pisua) ibilgailu industrialak erosten dituztenei, edo hala badagokio, ibilgailu horien finantza-errentariei ematen zaizkien hobariak Sozietateen gaineko Zergaren kuota osotik edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenetik; betiere erosle edo errentari horiek euren jabetzapeko 6 tonako (baimendutako gehienezko pisua) beste ibilgailu bati behin betiko baja eman badiote desegiteko, eta ondorengo baldintzok betez gero:

a) Desegitera bidalitako ibilgailuak zazpi urte baino gehiagoko antzinatasuna izatea behin betiko matrikula lehendabizi egin zitzaionetik. Behin betiko lehen matrikulazioa Espainian egin ez bada, aurreko lerroaldean adierazitako antzinatasunaz gain, honakoa eskatuko da: desegitekoa den ibilgailu hori, baja eman baino gutxienez urtebete lehenago, Espainian behin betiko matrikulatuta egotea.

b) Hala ibilgailu berriak nola desegiteko bidaliko den ibilgailuak honako egoeraren batean jasota egotea: batetik, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide-segurtasunari buruzko Lege artikulatua onartzen duen martxoaren 2ko 339/1990 Legegintzako Errege Dekretuko Eranskinaren 23. eta 26. ataletan, eta, bestetik, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-premiazko Araugintzako Dekretuko 70.1.a) artikuluan jasotako Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezira lotuta ez egoteko egoeraren batean.

2. Aurreko paragrafoak jasotzen duen kuota osoan egin daitekeen kenketa ez da 480,81 euro baino gehiago izango, ibilgailuko.

3. Hobaria ez da kenkariduna izango ibilgailu zaharra bajan eman eta berria matrikulatu arte sei hilabete baino gehiago igaro badira.

4. Artikulu honetako 1. paragrafoak jasotako kenketa ondorengo hauek aplikatuko dute: fabrikatzaileak, Espainian izan den lehen hartzaileak edo, hala badagokio, eta horien ordez, emakida egiten duenarekin edo azken saltzailearekin banaketa egiteko kontratu harremanak egiten duenak.

Horrelakoetan, ibilgailuaren emakida egiten duenak edo azken saltzaileak ibilgailuaren prezioan aplikatuko du hobaria, baina hobari horrek ez du eraginik izango Balio Erantsiaren gaineko Zergaren oinarrian ez eta kuotan ere.

Cuando la primera matriculación definitiva no hubiera tenido lugar en España, se requerirá, además de la antigüedad a que se refiere el párrafo anterior, que el vehículo automóvil de turismo usado haya sido objeto de matriculación definitiva en España, al menos seis meses antes de la baja definitiva por desguace a que se refiere la letra b) siguiente.

b) Haber sido dado de baja definitiva para desguace y no haber transcurrido más de seis meses desde dicha baja hasta la matriculación del vehículo automóvil de turismo nuevo.

3. El vehículo automóvil de turismo nuevo al que se refiere el apartado 1 anterior deberá tener una cilindrada inferior a 2.500 centímetros cúbicos.

4. Los requisitos anteriores se acreditarán en el momento de efectuar la primera matriculación definitiva del vehículo automóvil de turismo nuevo, adjuntando al justificante de ingreso del Impuesto el documento acreditativo de la baja definitiva del correspondiente vehículo automóvil de turismo usado, expedido por la Dirección General de Tráfico o los correspondientes órganos dependientes de la misma.”

Artículo 2.- Modificación del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 17/1997, de 28 de octubre, por el que se incorporan a la normativa fiscal alavesa las medidas contenidas en la Ley 39/1997, de 8 de octubre, por la que se aprueba el Programa PREVER.

Con efectos exclusivos para el año 2007 se modifica el artículo 3 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 17/1997, de 28 de octubre, por el que se incorporan a la normativa fiscal alavesa las medidas contenidas en la Ley 39/1997, de 8 de octubre, por la que se aprueba el Programa PREVER, que queda redactado como sigue:

Artículo 3.-

1. Las personas que se indican en el apartado 4 de este artículo podrán deducirse de la cuota íntegra del Impuesto sobre Sociedades o de la cuota íntegra del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas el importe de las bonificaciones otorgadas a compradores y, en su caso, arrendatarios financieros de vehículos industriales nuevos de menos de 6 toneladas de peso máximo autorizado, siempre que dichos compradores o arrendatarios financieros justifiquen que han dado de baja para el desguace otro vehículo industrial de menos de 6 toneladas de peso máximo autorizado del que sean titulares y que concurran las siguientes condiciones:

a) Que el vehículo para el desguace tenga más de siete años de antigüedad desde su primera matriculación definitiva. Cuando la primera matriculación definitiva no hubiera tenido lugar en España, se requerirá, además de la antigüedad a que se refiere el párrafo anterior, que el vehículo para desguace haya sido objeto de matriculación definitiva en España, al menos un año antes de su baja definitiva para desguace.

b) Que tanto el vehículo nuevo como el vehículo para el desguace estén comprendidos en los apartados 23 ó 26 del Anexo del Real Decreto Legislativo 339/1990, de 2 de marzo, por el que se aprueba el texto articulado de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial, así como en alguno de los supuestos de no sujeción del Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte contemplados en la letra a) del apartado 1 del artículo 70 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales.

2. La deducción en la cuota íntegra a que se refiere el apartado anterior no será superior a 480,81 euros por vehículo.

3. La bonificación no será deducible si han transcurrido más de seis meses desde la baja del vehículo antiguo hasta la matriculación del nuevo vehículo.

4. La deducción contemplada en el apartado 1 de este artículo será aplicada por el fabricante, por el primer receptor en España o, en su caso y en lugar de éstos, por quien mantenga relaciones contractuales de distribución con el concesionario o vendedor final.

En este caso, el concesionario o vendedor final del vehículo aplicará la bonificación en el precio del mismo, pero dicha bonificación no afectará a la base ni a la cuota del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Finantza-alokairuaren egoeran, hobariaren zenbatekoa Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zerga-oinarrian sartuko da.

Artikulu honek aipatutako hobaria jasotzen duen subjektu pasiboak hobariaren zenbatekoa itzuliko die emakidadunari edo azken saltzaileari, 2. paragrafoan zehaztu den kenketaren zenbatekoa muga izango delarik. Azken horiek, berriz, hobariaren aplikazioa justifikatzeko fakturak eta ibilgailuei baja eman zaiela adierazten duten egiaztagiriak emango dizkiete subjektu pasiboei, hori dena Sozietateen gaineko Zergan eta Pertsona Fisikoen Errentaren Zergan egiten dituzten kenketak egiaztatze aldera.

5. Aurreko paragrafoetan ezarritako baldintzak betetzen direla kasuan kasuko ibilgailuak bajan eman direlako ziurtagiri bidez egiaztatuko dira, eta egiaztagiriok Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak edo haren menpeko organo eskudunek egingo dituzte.

6. Artikulu honek bere 1. paragrafoan aitatzen duen kenketakopuruak atxikipenek eta konturako sarrerek kenketarako edo, hala badagokio, itzultzeko duten tratamendu bera izango du; baita subjektu pasiboak ordaindu beharreko zatikako ordainketen tratamendu bera ere. Aipatutako atxikipen eta sarrera kontuak ondoko hauek arautzen dituzte: Sozietateen gaineko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Aginduaren 47. artikulua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Aginduaren 97. eta 113. artikuluak."

3. artikulua.- Hidrokarburoen gaineko Zerga ohiz kanpo itzultzea nekazari eta abeltzainei.

Bat. Nekazariek gasolioa erosteagatik ordaindu edo jasan beharreko Hidrokarburoen gaineko Zergaren kuotak itzultzeko eskubidea aitortzen da; hain zuzen ere, Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretuaren 50. artikuluko 1. paragrafoko 1.4 atalak ezarritako tipoan eta 2005eko urriaren 1etik 2006ko irailaren 30era arteko tartean zerga ordaindu duten nekazariei ordaindutakoa itzultzekoa. Itzuli beharrekoa guztira honela kalkulatuko da: 78,71 euro 1000 litroko tipoa aplikatuko zaio nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barnean sartzen dira) epe horretan benetan erabilitako gasolio-bolumena (milaka litrotan adierazia) 0,998 koefizientearekin biderkatzetik ateratako oinarriari.

Bi. Nekazaritzat joko dira Zerga Bereziei buruzko otsailaren 16ko 1/1999 Zerga-Premiazko Araugintzako Dekretuaren 50. artikuluko 1. paragrafoko 1.4 atalak ezarritako tipoan eta adierazitako epean zerga ordaindu duten pertsona edo erakundeak, gasolioa erabiltzeagatik; betiere gasolio hori benetan nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) erabili badute, eta Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren Hirugarren Xedapen Gehigarriak jasotako zergapekoen zentsuan inskribatuta egon badira jarduerok egiterakoan.

Hiru. Erregelamendu bidez, ordaindutakoa itzuli ahal izateko prozedura ezarriko da, eta horrek interesdunek zerga aitorpenak zein errolda aitorpenak aurkeztu behar izatea ekar dezake.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Indarrean izatea.

Xedapen orokor honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du indarra.

Bigarrena.- Gaitzea

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren bestelako xedapenak emateko.

Hirugarrena.- Biltzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Biltzar Nagusietara bidaliko da baliozkotu edo ezezta dezaten, indarrean dagoen arautegiarekin bat etorrita.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 27a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.– Ogasun zuzendaria, FRANCISCO JAVIER ARRAZOLA ARRIEN.

En el supuesto de arrendamiento financiero el importe de la bonificación se integrará en la base imponible del Impuesto sobre el Valor Añadido.

El sujeto pasivo a cuyo cargo se abone la bonificación a que se refiere el presente artículo reintegrará al concesionario o vendedor final el importe de la bonificación, con el tope de la cuantía de la deducción establecida en el apartado 2, y éste facilitará a aquél las facturas justificativas de la aplicación de la bonificación y los certificados de baja de los correspondientes vehículos, a efectos de justificación de las deducciones que éstos efectúan en el Impuesto sobre Sociedades o en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

5. El cumplimiento de los requisitos exigidos en los anteriores apartados se hará constar en los certificados de baja de los correspondientes vehículos expedidos por la Dirección General de Tráfico o los órganos competentes dependientes de la misma.

6. El importe de la deducción a que se refiere el apartado 1 de este artículo tendrá la misma consideración que las retenciones e ingresos a cuenta a los efectos de la deducción y, en su caso, devolución, reguladas en el artículo 47 de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades y en los artículos 97 y 113 de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, así como en relación con los pagos fraccionados que el sujeto pasivo estuviera obligado a efectuar."

Artículo 3.- Devolución extraordinaria del Impuesto sobre Hidrocarburos para agricultores y ganaderos.

Uno. Se reconoce el derecho a la devolución de las cuotas del Impuesto sobre Hidrocarburos satisfechas o soportadas por los agricultores con ocasión de las adquisiciones de gasóleo que hayan tributado al tipo del epígrafe 1.4 del apartado 1 del artículo 50 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, que hayan efectuado durante el período comprendido entre el 1 de octubre de 2005 y el 30 de septiembre de 2006. El importe de las cuotas a devolver será igual al resultado de aplicar el tipo de 78,71 euros por 1000 litros sobre una base constituida por el resultado de multiplicar el volumen de gasóleo efectivamente empleado en la agricultura, incluida la horticultura, ganadería y silvicultura durante el período indicado, expresado en miles de litros, por el coeficiente 0,998.

Dos. A los efectos de esta devolución se consideran agricultores las personas o entidades que, en el período indicado, hayan tenido derecho a la utilización de gasóleo que tributa al tipo del epígrafe 1.4 del apartado 1 del artículo 50 del Decreto Normativo de Urgencia Fiscal 1/1999, de 16 de febrero, de Impuestos Especiales, y que, efectivamente, lo hayan empleado como carburante en la agricultura, incluida la horticultura, ganadería y silvicultura, y que, además, hayan estado inscritos, en relación con el ejercicio de dichas actividades, en el Censo de Obligados Tributarios al que se refiere la Disposición Adicional Tercera de la Norma Foral 6/2005, de 28 de febrero, General Tributaria de Álava.

Tres. Reglamentariamente se establecerá el procedimiento para efectuar la devolución que podrá comprender la obligación de que los interesados presenten declaraciones tributarias, incluso de carácter censal.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.- Entrada en vigor.

La presente disposición general entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

Segunda.- Habilitación.

Se autoriza a la Diputación Foral de Álava para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación de la presente disposición general.

Tercera.- Remisión a Juntas Generales.

Este Decreto Normativo de Urgencia Fiscal se someterá a las Juntas Generales de Álava, para su convalidación o revocación, de conformidad con lo establecido en la normativa vigente.

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero de 2007.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– El Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JUAN ANTONIO ZÁRATE PÉREZ DE ARRILUCEA.– El Director de Hacienda, FRANCISCO JAVIER ARRÁZOLA ARRIEN.

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

1168

**14/2007 FORU DEKRETUA, otsailaren 20ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeentzako laguntzak emateko oinarriak onartzen dira, auzoen arteko harremanak sustatzeko 2007ko programaren barruan.**

Apirilaren 24ko 14/1997 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Lan eta Zerbitzuen eta elkar laguntzarako beste tresna batzuen foru plana arautzen du toki erakundeen obra eta zerbitzuetarako.

Aipatutako arauaren IV. tituluan auzoen arteko harremanak sustatzeko programari buruzko xedapenak antolatu eta honelako laguntzak emateko arauak eta irizpideak finkatzen dira.

Programa horrek landa giroko gizartean auzoen arteko harremanak eta talde izaera sustatu nahi du, tradiziozko sistema edo auzolanak eginez.

Horretarako, eta Arabako Lurralde Historikoaren Dirulaguntza eta Transferentzien otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua aplikatzeko, Auzoen arteko Harremanak Sustatzeko 2004ko programan Arabako toki erakundeei eman beharreko laguntzak arautuko dituzten oinarriak aurkeztu dira.

Horregatik guztiarengatik, Toki Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bileran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

Lehenengo. Auzoen arteko harremanak sustatzeko 2007ko programaren barruan Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei dirulaguntzak emateko oinarriak onartzea. Oinarri horiek foru dekretu honekin batera jasotzen dira I. Eranskinean.

Bigarren. Diru-laguntzen konpromisoak, 303.617,28 euro bitartekoak, Arabako Foru Aldundiaren 2007rako luzatutako 2006ko aurrekontuaren partida honen kontura ordainduko dira: 10.1.01.63.03.7.3.1.99.01 partida (07.5.07 taldea, 10-24 lerroa). Aurrekontuan horretarako dirurik egonez gero, kopuru hori handitu egin ahal izango da.

Hirugarren. Obra eta Zerbitzuen Foru Planerako Zerbitzuaren burua izango da izapidea egiteko organo eskuduna eta Toki Administrazioaren Saileko diputatua, berriz, prozeduraren ebazpenerako organo eskuduna.

Laugarren.- Diru-laguntza emateko aurkeztu diren eskaerei aurrekontu-ekitaldian emango zaie ebazpena, eta epe hori igaro ondoren ebazpen adierazirik eman edo jakinarazi ez bada, ezezkoa eman zaiela esan nahiko du.

Bosgarren. Toki erakundeei idatziz jakinaraziko zaie obra horiek aurrekontuan sartuko diren ala kanpoan utziko diren adierazten duen ebazpena. Horrekin batera, zein epetan egin eta zein baldintza bete beharko duten adieraziko zaie. Ebazpen horrek amaiera ematen dio administrazio bideari.

Vitoria-Gasteiz, 2007ko otsailaren 20a.– Diputatu nagusia, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Toki Administrazioaren Saileko diputatua, ISABEL FERNÁNDEZ DE CASTILLO GONZÁLEZ.– Toki Administrazioaren zuzendaria, JOSÉ MARÍA UNAMUNZAGA GUINEA.

**I. eranskina**

ARABAKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ERAKUNDEEI 2007KO PROGRAMAREN AUZO ARTEKO HARREMANAK SUSTATZEKO LAGUNTZAK EMATEKO OINARRI ARAUTZAILEAK.

Lehenengoa. Xedea

Oinarri hauen xedea da, auzoen arteko harremanak sustatzeko 2007ko programaren barruan, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeei diru-laguntzak emateko jarraitu beharreko eskakizun, era eta prozedura arautzea.

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

1168

**DECRETO FORAL 14/2007, del Consejo de Diputados de 20 de febrero, que aprueba las bases reguladoras para la concesión de las ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el programa 2007, de Promoción de Relaciones Vecinales.**

La Norma Foral 14/1997, de 24 de abril, regula el Plan Foral de Obras y Servicios y otros instrumentos de cooperación de la Diputación Foral de Álava a las obras y servicios de las entidades locales.

En el Título IV de la citada Norma se articulan las disposiciones relativas al Programa de promoción de relaciones vecinales y determinan las normas y criterios que han de regir la concesión de este tipo de ayudas.

Este Programa trata de fomentar las relaciones vecinales de la sociedad rural y el sentido de colectividad, a través de la ejecución de obras por el sistema tradicional de veredas o auzolan.

A tal efecto y en aplicación de la Norma Foral 3/1997, de 7 de febrero, de Subvenciones y Transferencias del Territorio Histórico de Álava se presentan las bases que regularán las ayudas a las entidades locales de Álava en el Programa 2007, de promoción de relaciones vecinales.

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Administración Local, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de la fecha,

DISPONGO:

Primero. Aprobar las bases para la concesión de las ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el programa 2007 de promoción de relaciones vecinales, que se incorporan como Anexo I del presente Decreto Foral.

Segundo. Los compromisos de subvención hasta un total de 303.617,28 euros, se financiarán con cargo a la partida 10.1.01.63.03.7.3.1.99.01, habilitada al efecto en el presupuesto de 2006 de la Diputación Foral de Álava prorrogado para el ejercicio 2007 (agrupación 07.5.07, línea 10-24). Dicha cantidad podrá aumentarse en función de las disponibilidades presupuestarias.

Tercero. El órgano competente para la instrucción será el Jefe del Servicio de Plan Foral de Obras y Servicios y el órgano competente para la resolución del procedimiento será la Diputada del Departamento de Administración Local.

Cuarto. Las solicitudes presentadas para la concesión de las subvenciones se resolverán dentro del ejercicio presupuestario correspondiente, y han de entenderse denegadas por el transcurso del mismo sin que haya recaído y notificado resolución expresa.

Quinto. La resolución adoptada sobre la inclusión de las obras será notificada a las entidades locales mediante comunicación escrita, con expresión de su plazo de ejecución y de las condiciones que deberán ser cumplidas. Dicha resolución pone fin a la vía administrativa.

En Vitoria-Gasteiz, 20 de febrero de 2007.– El Diputado General, RAMÓN RABANERA RIVACOBA.– Diputada de Administración Local, La ISABEL FERNÁNDEZ DE CASTILLO GONZÁLEZ.– El Director de Administración Local, JOSÉ MARÍA UNAMUNZAGA GUINEA.

**Anexo I**

BASES REGULADORAS PARA LA CONCESIÓN DE LAS AYUDAS A LAS ENTIDADES LOCALES DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA EN EL PROGRAMA 2007, DE PROMOCIÓN DE RELACIONES VECINALES

Primera. Objeto

Es objeto de las presentes bases regular los requisitos, forma, procedimiento a seguir para la concesión de las ayudas a las entidades locales del Territorio Histórico de Álava en el Programa 2007, de promoción de relaciones vecinales.